



Itziar Lakararen eta Bergoi Madernaz arteko solasaldia. ALEA

"Guztuen ardura da lan mundua euskaratzea"

BERGOI MADERNAZ BAI EUSKARARI ELKARTEA

ITZIAR LAKARRA EUSKARA TEKNIKARIA

Euskarak eremu sozioekonomikoan dituen egoera eta beharrak partekatu ditu aurtengo Eragiteko Janzten zikloaren formatu berrituan Bergoi Madernaz Bai Euskarari-ko aholkulariak. **Ezagutzen ez dutenentzat, zer da Bai Euskarari elkarteak?** Lan munduan euskararen erabilera areagotzeko lan egiten duen elkarteak da. Elkarteak bera baino, seguru aski jende gehienak gehiago ezagutuko du Bai Euskarari Ziurtagiria. Proiektuaren erdigunea da.

Noiztik dago martxan elkarteak? Zer ibilbide izan du?

Euskalgintzaren Kontseiluak 2007an sortu zuen, aurretik, 2000n, martxan jarritako Bai Euskarari Ziurtagiria kudeatzeko. Garai horretan eztabaida estrategikoa bat egin zen, eta ikusi zen lan mundua euskalduntzeko beharra zegoela. Hor sortu zen ziurtagiria. Zazpi urteren buruan ikusi zen ziurtagiriak aparte lan munduan eragiteko beste tresna eta indar batzuk behar zirela, eta horregatik sortu zen elkarteak. Ordudanik jarraitu dugu ziurtagiria kudeatzen, baina

beste hainbat proiektu martxan jarri ditugu ere. Adibidez *Lanarean* ataria sortu dugu, enpresak eta lana bilatzen ari diren langileak lotzeko.

Euskaragileak proiektua sortu da ere, euskararen aurreratuta dauden enpresa multzoak; edo *Enpresaren* izenekoak, euskaraz lan egiten duten enpresak elkartzeko gunea.

Pentsa genezake lan munduan euskara ez dagoela oso errotuta, ezta?

Ez dago, ez. Badaude enpresa batzuk gai honen inguruan lan handia egin dutenak, baina Euskal Herri mailan kalkulatu da enpresa edo entitateen %lek kudeatzen duela modu batean edo bestean euskara, bai ziurtagiriarekin edo euskara plana izanda. Oso eskasa da kopurua.

Gasteizen, zenbat saltokik edo enpresak dute ziurtagiria?

130 inguruk daukate; haiei, urtero ebaluazio bat eskaintzen diegu. Euskal Herri mailan, 1270 enpresa inguruk dute ziurtagiria.

Profil desberdineko enpresak al dira?

Profil zabala hartzen dugu gure gain, bai. Izan ere, alor sozioekonomikoa bera ere oso zabala da. Baditugu enpresa industrialak, dendak, tabernak, jatetxeak, eta beste mota batzuetako entitateak ere: federazioak, ikastolaren bat, elkarteak... Azken finean, gure metodologiarekin horiek guztiak gure gain hartzen ditugu, eta laguntzen diegu euskara txertatzen jarraitu dezaten.

Enpresen kasuan, nolakoak da euskararekiko jarrera?

Enpresei kostatzen egiten zaie hizkuntza kudeaketan sartzea, eta batzuek agian ez dute Gasteiz hain hiri euskaldun bezala hartzen; ez dute beharra

ikusten. Beste batzuek, aldiz, bere gain hartzen dute erronka. **Gasteizen, zein oztopo aurkitu dituzue?**

Oztopo handiena euskararen garrantzia azaltzea izan da, agian. Euskarak zer balio erantsi emango dien entitate horiei; azaltzea euskarak onurak emango dizkiela, hala nola bezeroarekiko gertutasunean, fidelizazioan... azken finean, azaltzea euskaldunentzat zeinen garrantzitsua den gure hizkuntza. Puntu horretara iristea, enpresei adieraztea zer garrantzitsua den egunerokotasunean euskara txertatzea... hori zailena agian. **Beharrezkoak zaizkien baliabideak eta laguntzak eskaintzen al zaizkie enpresei?**

Hainbat baliabide eta laguntza dituzte eskura. Agian ez beharrezkoak diren bezainbeste;

"EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA IZAN BEHARKO GENUKE LANGILE BEZALA, AHAL DEN HEINEAN"

baina egon, badaude. Dena dela, gure esperientziagatik, hau guztia beti gelditzen da hankamotz. Kontua ez da eskaintzen ez zaizkiela, baizik eta ezagutza falta daukatela; edo, batzuetan, baliabidearen arabera, zailtasunak dituztela horiek eskuratzeko. Azken finean, entitateak beren egunerokotasunean murgilduta daude, eta laguntza horietara salto egitea kostatzen da. **Zer egin genezake lan mundua euskalduntzeko? Noren ardura da hori?**

Guztien ardura dela uste dut. Azken finean, guztiok ditugu ardurak. Kontsumitzaile gisa euskara eskatzen eta exijitzen baldin badugu, horrek inpaktu bat izango du beste aldean. Langile bezala ere guztiok euskaraz lan egiteko eskubidea izan beharko genuke, ahal den heinean. Baina askotan moztu egiten gara. Bestetik, administrazioek ere esparru honetan lan handia dute egiteko. Euskararen sustapena egitea ondo dago, baina handik salto bat egin behar da ezinbestean; gaia arautu behar da, eta bai bezeroek zein langileek euskaraz kontsumitzeko edo lan egiteko duten eskubidea arautu eta bermatu behar da. Enpresek zein enpresariak ere heldu behar diote euskara kudeatu eta sustatzeko erronkari. —



CIUDAD JARDIN

LANBIDE HEZIKETA

GASTEIZEN

- MERKATARITZA ETA MARKETINA
- INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK
- MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIRAKO PRESTAKUNTZA
- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ADIMEN ARTIFIZIALA ETA BIG DATAKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA

Ate irekiak: Maiatzaren 8, 14 ta 15ean

ESKATU HITZORDUA



JENDE TXIKI ASKOK, LEKU TXIKI ASKOTAN,

GAUZA TXIKIAK EGINEZ MUNDUA ALDA DEZAKE


